

LANBIDE SANITARIOEN ETENGABEKO PRESTAKUNTZAKO EUSKAL KONTSEILUA

2006KO JARDUEREN MEMORIA

Ohiko bilerak

Ebaluazio Batzordeak 21 bilera egin ditu. Bilera bakoitzeko, batez beste, 29 eskabide ebatzi dira.

Ekainean Lanzaroten egin diren Idazkaritza Teknikoen VIII. Jardunaldietan parte hartu da, baita Valladoliden irailean egindako IX. Jardunaldietan ere. Jardunaldi horietan, Osasun Sistema Nazionaleko Batzorde Kreditatzaile guztietako ordezkariak parte hartu zuten.

Aurten ez da Osoko Bilkura batzartu, ezta Batzorde Iraunkorra ere.

Maiatzetik aurrera, Kontseiluak sortutako dokumentu guztietan Osasun Sistema Nazionaleko Etengabeko Prestakuntzako Batzordearen logotipo berdea erabiltzeari utzi zitzaion. Hala ere, hornitzaileei gomendatzen zaie parte-hartzaileei eta irakasle/txostengileei egiten dizkieten ziurtagiri indibidualetan logotipoa sartzen jarraitzea, Euskadin onetsitako formazio-jardueretan parte hartzen duten profesional sanitarioek beste autonomia-erkidego batzuetan euren kredituak onartzeko orduan arazoak saihesteko asmoz.

Honako hauek izan dira **Ebaluazio Batzordeak** hartutako **erabaki** orokorrak:

2006ko maiatzaren 3ko 92 zenbakidun akta

Hemendik aurrera ez dira onartuko oso zehaztugabeak diren eta jardueraren edukiak edo helburuak ondorioztatzen uzten ez dituzten jardueren tituluak. Esandakoaz gain, jarduera-mota dakarten tituluak ez dira onartuko. Jarduera ebaluatu baino lehen, titulua aldatu beharko da.

2006ko ekainaren 15eko 96 zenbakidun akta

Lehenengo auditoria Kontseiluak onetsitako jarduera bati *in situ* egitea erabaki da: TRATAMENDU PLANA eta LABORATEGIKO TEKNIKARIENTZAKO IKASTAROA izendatutako 8 eta 9 moduluak ikuskatuko dira. Modulu horiek BTI, I+G entitate hornitzailearenak dira.

2006ko ekainaren 26ko 97 zenbakidun akta

Hasiera batean egoiliarrentzat planifikatu eta geroago beste xede-populazio batentzat bideratu diren formazio-jarduerak ez onestea erabaki da. Hori gertatu denean eta zerrendak ikusita, parte-hartzaileak masiboki egoiliarrek izaten jarraitzen dutela egiaztatu da.

Osasun Sistema Nazionaleko Etengabeko Prestakuntza Egiaztatzeko Idazkaritza Teknikoen VIII. Jardunaldietan lortutako erabakiak:

2006ko ekainaren 9ko akta

1. SISTEMA KREDITATZAILEAK ONETSITAKO JARDUEREN AUDITORIA:

- Jardueren egiaztapenarekin zerikusia duten alderdiak ez betetzetik sortutako ondorioen erregelamendu bat aplikatzeari buruzko txosten juridikoa eskatzea.
- Beste jardunbide batzuetan aurrera egitea, esaterako hornitzaileen egiaztapena.
- 2007ko lehenengo bileran Auditoria Prozedurari eta Ondorioen Erregulazioari buruzko dokumentu bat aurkeztea, Idazkaritzen taldea kontuan hartzeko.
- Auditorearen Koadernoaren eguneratzea, hurrengo jardunaldian aurkez dadin.
- Idazkaritza Tekniko eragileek, aurkeztu den auditorearen koadernoaren balorazio-ariketak egitea.

2. SISTEMA KREDITATZAILEAREN ERABAKI OROKOR, ARRUNT ETA MINIMOEI BURUZKO ESKULIBURUA:

- BAME bidez prestatzen ari diren profesionalen etengabeko prestakuntzako jardueren izapidetzeko onarpena edo ez onarpena berrikustea.
- Prozeduren eskuliburua aurkeztea erabaki orokor-arrunt eta minimoak; eskuratutako erabakiak eta berresteko eraman ez direnak; eta Idazkaritza Teknikoek hasi eta bukatu gabeko lanak azalduz.
- Egiaztatzeko dauden erabileremuak berrikustea.

3. ETENGABEKO PRESTAKUNTZAKO JARDUEREN HORNITZAILEEN TIPOLOGIA:

- Etengabeko prestakuntzako jardueren hornitzaile desberdinen CCLaren konparazio-azterlan bat egitea.
- Andaluziak Hornitzaileak Egiaztatzeko Eskuliburuarekin gauzatutako pilotajearen emaitza aurkeztea.

4. BESTELAKOAK:

- Garapen Profesionaleko Batzorde Teknikoari, egiaztapenaren Informazio Sistemari buruzko adostasun-dokumentu bat eduki ahal izateko lanean hasteak duen garrantzia helaraztea.

Osasun Sistema Nazionaleko Etengabeko Prestakuntza Egiaztatzeko Idazkaritza Teknikoen IX. Jardunaldietan lortutako erabakiak:

2006ko irailaren 29ko akta

1. LANBIDE SANITARIOEN ETENGABEKO PRESTAKUNTZAKO BATZORDEAREN LOGOTIPOAREN ERABILERAREN INPLIKAZIOAK:

- Marka erabiltzeko baldintzak seinalatzea eta eskubidearen titulartasuna definitzea.
- Hala balegokio, egungo logotipoaren inskripzio-erregistroa eskatzea bere eraginkortasuna, bai maila nazionalen bai autonomia-erkidego mailan, utziko duten malgutasunekin.

2. ANDALUZIAKO AUTONOMIA ERKIDEGOAN HORNITZAILEAK EGIAZTATZEKO ESKULIBURUAREN APLIKAZIOARI BURUZKO PILOTAJEAREN EMAITZAK:

- Zentroen edo Instituzioen Egiaztatzea *zer* den definitzea, *zer* dakarren eta *zeintzuk* izango liratekeen irizpide arruntak, orokorrak eta minimoak.

3. ETENGABEKO PRESTAKUNTZAKO SISTEMA KREDITATZAILEAN JARDUEREN EBALUAZIOAN ALDAKORTASUNARI BURUZKO LANKIDETZA-HITZARMENAREN PROPOSAMENA:

- Aurkeztutako aldakortasun-bat etortze azterlana egitea. Proiektuaren txostengileek azterlana egiteko euskarri tekniko-administratiboaren eskuragarritasuna baloratuko dute.
- Sistemaren hasieratik egiaztatutako jardueren azterlan deskribatzaile baten gauzatzea baloratzea.
- Kanpoko agentzia batek finantzatzeko eta aztertze aukera kontuan hartzea.
- Azterlanaren hedadura kokatzea bere bideragarritasuna neurtzeko.

4. JARDUEREN EGIAZTAPENAREKIN ZERIKUSIA DUTEN ALDERDIAK EZ BETETZEAK DAKARTZAN ONDORIOEN ERREGELAMENDU BAT APLIKATZEARI BURUZKO TXOSTEN JURIDIKOA:

- Inplikazioak konplexuak direnez gero, bideragarriak diren aukera juridiko-administratiboak bilatzea.

5. PROZEDUREN ESKULIBURUA:

- Eskuliburu hau, Idazkaritza Teknikoen erreferentziako dokumentu bihurtzen da, Egiaztatzeko Sistemaren erabaki orokorrak, arruntak eta minimoak laburbiltzen dituelako.

- Etengabeko Prestakuntzako hitzen glosategi bat prestatzea, Osasun Sistema Nazional osoak erabiltzeko modukoa.
- X. Jardunaldietan prozedura onestea.


6. EGIAZTATZEKO GAIK:

- Profesional sanitarioek erabiltzeko programa informatiko espezifikoak eta beharrezkoak darabilten informazio-sistemei edota ikerkuntza sanitarioari buruz jarduten duten formazio-jarduerak sartzea.
- “Estres-autokontrol” eta “orientazio psikologikoari” buruz jarduten duten formazio-jarduerak sartzea, betiere pazienteak zaintzeko eta atenditzeko badira.
- “Hizkuntza zientifikoa” baztertu beharreko gaitzat hartzen jarraitzea.

Jardueren egiaztapena


2006. urtean 613 eskabide jaso dira: 259 lehenengo edizioak izan dira (%42) eta 354 hurrengo edizioak (%58). Iazko datuekin alderatuta, ia portzentaje berberak mantendu direla ikus daiteke.

Lanbideen arabeko eskabideak



Aurten, berriz ere, lanbide askotako jarduerak aurkeztutako eskabideen kopururik altuena izan dute; hala ere, izaera hori gehienetan bi lanbidetan biltzen da batez ere: medikuntza eta erizaintza (%70). Eskabide gehien aurkeztu duen **talde profesionala** erizaintzakoa izaten jarraitu du, iazko portzentajea mantendu baita (%29). Ondoren, medikuntza dator, bere jarduera %23ra arte gehitu duena; eta hirugarren, oso urruti badago ere, fisioterapia (%4). Farmaziak, aurten, bere jarduera nabariki gutxitu du (%3).

XEDE- POPULAZIOA	AURKEZTUTAK O JARDUERAK	EGIAZTATUTAK O JARDUERAK	UKATUTAKO JARDUERAK	ONARTU GABEKO JARDUERAK	BAZTERTUTA KO JARDUERAK
MEDIKUNTZA	144	137	3	2	2
ERIZAINZA	175	159	12		4
FARMAZIA	19	18		1	
LANB.ASKOT.	215	199	13		3
OKUP.TERAP.	2	2			
ETE	9	9			
LTE	7	7			
FISIOTERAPIA	23	9	14		
ERIZAIN.LAG.	17	16	1		
Lanb. ez sanit.	2		2		
GUZTIRA	613	556 (%90,7)	45 (%7,3)	3 (%0,5)	9 (%1,5)



18 jarduera, onetsita egon arren, ez dira burutu.

Ukatutako egiaztapenei dagokienez, 2006an horien portzentajea ia erdira (%7 bakarrik) murriztu da, eta honako arrazoi hauek eragin dute hori:


- master antzeko graduatu ondoko prestakuntza (21)
- entitate hornitzaileak ez ditu eskatzen diren gaitasunarekin eta prestakuntza-esperientziarekin zerikusia duten baldintzak betetzen (4)
- entitate hornitzailea merkataritza-etxe bat da (3)
- osasun-zientzietan espezifikoak ez diren gaiak (3)
- diziplina anitzeko jardueren irizpideak ez betetzea (1)
- laneko osasuna-autozainketa (5)
- prestatzen ari diren espezialistei zuzenduta egotea (2)
- profesional ez sanitarioei zuzenduta egotea (2)
- beste erakunde kreditatzaile batengatik egiaztatuta egotea (1)
- 2 ordutik beherako iraupena (1)
- kalitatean 1a ez gaikitzea (1)
- bertaratuen zerrendarik ez aurkeztea (1)

Jarduera-mota

Aurten, bertaratu gabeko 2 jarduera aurkeztu dira eta 31 mistoak izan dira. Guztiek dagokien egiaztapena eskuratu dute.


Jarduera-motari dagokionez, gehienak, %80, ikastaroak eta mintegiak izan dira. Horrez gain, tailerren portzentajea altua izan da (%11). %7a kongresuak eta iraupen laburreko jarduera masiboak (jardunaldiak eta bilerak) izan dira. Kongresuen kasuan, hornitzaile gehienak egiaztapen globala alde batera utzi eta modalitateen arabera egiaztapena aukeratzen hasi dira, horrek dakarren ahalegina handia den arren. Jardueren gainerako %2a saio klinikoei dagokie, euren portzentajea gorantz egiten ari delarik.

Egiaztatutako jardueren iraupena




Irakastordu-kopuruaren banaketa haxe izan da: gutxienez ordu 1 (modalitateen arabera egiaztatutako kongresu baten konferentzia bati dagokiona) eta gehienez 60. Nabarmendu behar da aurten ez dela iraupen luzeko jardueretarako egiaztapenik eskatu.

Egiaztatutako jardueretan parte hartu dutenen kopurua




Aurten, egiaztatutako jardueretan guztira 21.654 profesional sanitariok parte hartu dute, iaz baino 4.725 pertsona gehiago. Jarduera bakoitzean parte hartu dutenen kopurua oso aldakorra izan da: gutxienez 6 eta gehienez 600.

Osagai kualitatiboa




Gehiengoa 2,7an kokatzen da eta batez bestekoa 1,66an, ia iazko kopuru berdina. Kalitate baxuko jardueren portzentajeak zertxobait gora egin du iazkoarekin konparatzen badugu (%1 gehiago) eta kalitate altukoei dagokionak nabariki gora egin du (%2,5 gehiago).

Arloak




Aurten berriz ere, egiaztatutako jarduera gehienak, **arlo** klinikoari (atentzio zuzena) dagozkio lanbide guztietan, baita lanbide askotakoetan ere.

Klinikoak ez diren arloak (zeharkakoak)



Egiaztatutako jardueren hornitzaileak



ENTITATE HORNITZAILEA	Onetsitako jardueren kop.
Osakidetza-Zerbitzu Zentralak	135
Osasun Ikaskuntza Fundazioa	61
Osasun Saila	30
Naemt	29
Gipuzkoako Erizaintzako Elkargoa	24
Bizkaiko Erizaintzako Elkargoa	24
Gurutzetako Ospitalea	21
Donostia Ospitalea-Mediker-Polikalte-Ugame	19
Osakidetza-Gipuzkoa Ekialdeko Eskualdea	16
Bizkaiko Farmazialarien Elkargoa	15
Biotechnology Institute I mas D, S.L.	14
Santiago Ospitalea-Santinvest-Beharzena	13
Osakidetza-Gipuzkoa Mendebaldeko Eskualdea	13
Basurtuko Ospitalea	9
Arabako Erizaintzako Elkargoa	7
Galdakaoko Ospitalea-Gosiker	7
Euskal Herriko Laborategiko teknikarien Elkartea	6
Gipuzkoako Medikuen Elkargoa	5
Osakidetza-Urbe Eskualdea	5
Txagorritxu Ospitalea	5

Neuropsikiatriako Espainiar Elkarte	5
Medikuntza Fisiko eta Errehabilitazioko Euskalerrri Elkarte	5
Familia eta Komunitateko Med. Irakaskuntzako Unitatea-Bizkaia	5
Gasteizko Erizaintzako Unibertsitate Eskola	4
Osatzen	4
Lehen Mailako Atentzioko Pediatriako Euskal Elkarte	4
Lehen Mailako Atentzioko Ikerkuntzako Unitatea (Bizkaia)	4
Pelvex Sistemas, S.L.	4
Arabako Farmazialarien Elkargoa	3
Osakidetza-emergentziak	3
Debagoieneko Ospitalea	3
Osakidetza-Arabako Eskualdea	3
Osasungoa Euskalduntzeko Erakundea-OEE	3
Elkargunea	3
Familia eta Komunitateko Med. Irakaskuntzako Unitatea-Araba	3
Crf Amostegi	2
Hipertentsio eta Arrisku Kardiobaskularraren Euskal Elkarte-EUSTEN	2
Zumarragako Ospitalea	2
Mendaroko Ospitalea	2
Osakidetza-Bilboko Eskualdea	2
ORLko Euskal Elkarte	2
Euskal Autonomia Erkidegoko terapeuta okupazionalen Elkarte	2
Gipuzkoako Poliklinika	1
Gotor, C.B.	1
Gipuzkoako Odontologoien Elkargoa	1
Ospitalez kanpoko Osasun Mentala-Bizkaia	1
Ospitalez kanpoko Osasun Mentala-Gipuzkoa	1
Gorlizko Ospitalea	1
Osakidetza-Ezkerraldea Enkarterri Eskualdea	1
Euskadiko Erradiologoien Elkarte	1
Medikuntza Intentsiboko Elkarte	1
Arnas Aparatuko Euskal Elkarte-SVNPAP	1
Anestesiako Erizaintzako Elkarre Espainiarra	1
Anestesiologia Irakaskuntzako Europako Fundazioa	1
Gipuzkoako Foru Aldundia	1
Dokumentazio Klinikoko Iparreko Elkarte	1
Esku Medikuntzako Klinika	1
La Esperanza Klinika	1
Arabako Medikuen Elkargoa	1
SOCINORTE	1
Bioef	1
Neurologiako Euskal Elkarte	1
Anestesia eta Bizkorketako Euskal Elkarte	1
Osakidetza-Barrualdeko Eskualdea	1

Psiker-Arabako Osp. Psik. Medikuen Elkarte	1
BBB pediatriko eta jaioberrien Euskal Taldea	1
Hipertentsio eta Arrisku baskularraren Elkarte	1
EHU	1
Pediatriako Urgentzietako Espainiar Elkarte	1
Hematologiako Iparralde Elkarte	1
GUZTIRA	556